



**C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.**

Revisión 6  
25-10-2017

**KUDEAKETARAKO ARAUAK – ERASKINA1  
IKASTETXE KUDEATZEKO POLITIKA**

Pág. 1 de 2

## **KUDEATZEKO POLITIKA**

C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.ko zuzendaritzak, ikastetxeko beste kideekin batera, bere gain hartzen du ondoko erantzukizuna: kalitateko zerbitzua eskaintzea gure bezeroei ingurugiroarekin begirunez jokatzu eta barneko pertsonekin segurtasuna bermatuta, beraien premiak eta itxaropenak bete daitezten. Horregatik, gure kudeaketa sistema bateratuaren jarduera esparru guztietan, ezinbestekotzat jotzen dugu bai erakundea osatzen duten pertsona guztiei, baita bere izenean jarduten dutenei ere, informatzea, komunikatzea, formatzea, parte hartzea eta kontsultatzea.

Horregatik, egunean-egunean ahalegintzen gara ondoko helburuak lortzeko:

- . Gure kudeaketa sistema bateratuaren eraginkortasuna eta bere jarduera esparruko betebeharren etengabeko hobekuntza.
- . Gure jarduerari loturiko legeak eta geuk gure gain hartutako betekizunak gordetzea.
- . Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea, ikastetxean edo ikastetxearen izenean burutzen duten lanari loturiko kutsadura eta arriskuak aurreikusiz.
- .Ikastetxearen helburuak zehaztea, beharrezkoa denean berrikustea, jakinaraztea eta betearaztea, Kudeaketa Politika abiapuntutzat hartuta.

Kalitatearekin dugun konpromesua erakunde osoari dagokio; horregatik, ikastetxea osatzen duten kide guztiek hartu dute bere gain sistemaren eraginkortasunaren etengabeko hobekuntzan parte hartzeko erantzukizuna, baita zenbait baldintza betetzeko bai “Bezeroekin”, baita indarreko lege eta araudiarekin. Helburu hauetarako, Ikastetxeko Zuzendaritzak baliabideak jarriko ditu beharrezko formakuntza maila lortzeko bere funtzioak garatze aldera.

Ibon Intxausti Sangroniz - zuzendaria



**C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.**

Revisión 6  
25-10-2017

**KUDEAKETARAKO ARAUAK – ERASKINA1  
IKASTETXE KUDEATZEKO POLITIKA**

Pág. 2 de 2

## **POLITIKA PEDAGOGIKOA**

C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.ak ildo hauek jarraitzen ditu:

- Aintzat hartzen du, zentroko helburu pedagogiko nagusiak, ikasleen emaitza akademikoak eta beren lanerako eta ikasketetarako gaitasunaren hobekuntza eta lan munduan barneratzea direla.
- Planifikatu egiten du irakaskuntza, zehaztu egiten ditu ahalik eta gehien irakas-ikas jarduerak, eta aztertu egiten ditu beren eraginkortasuna hobetzeko.
- Bere orientazio pedagogikoaren eta profesionalaren ildo nagusiak, ikasketa eta empletotasunean garatzen ditu.
- Irakasgai eta modulu berdinak irakasten dituzten irakasleen artean, irakas-ikas jarduerak, baita helburuak, irakasbideak eta baliabide didaktikoak ere, partekatu egiten dira.
- Garrantzi berezia ematen die irakasle taldeei, ikasleen ikasketaren jarraipenerako.
- Zeharkako proiektuak sustatzen ditu departamentu didaktikoen parte hartzea bultzatzeko.
- Ikaslearen banakotasuna aintzat hartzen du, eta tutoretza lan ahalik eta pertsonalizatuena burutzen du, ikasketa eta lanerako orientazioaren arloan.
- Aintzat hartzen du, ikaskuntza, gaitasunak lortzea dela, ez jakintza igortze hutsa. Metodologiaren bitartez, ikasteaz gain, irakastea ere lortu nahi dugu.
- Ondoko gaitasunak sustatu nahi ditu ikaslearengan: ikasketa-teknikoa (jakintza), prozedurazkoak (egiten jakitea), Zeharkakoak (izaten eta egoten jakitea)
- Ahalegindu egiten da, ikasleak eta ikastetxeko langileak ingurugiroaren garantiaz jabetu daitezen.
- Heziketa gero eta integralagorantz jotzen du, eta ingurugiroari loturiko ekintzak burutzen ditu ikasgelan.

Aurreko ildoak, urteko plangintzan eta ikastetxearen helburuetan gauzatzen dira, eta neurgarriak izan beharko dira, beraien betetze maila aldizka neurtu ahal izateko.

Ibon Intxausti Sangroniz - zuzendaria